

Leuzipo, atomismoaren aitzindaria

Egilea: Josemari Sarasola

Gizapedia



- Atomismoaren lehen filosofotzat hartzen da.
- Iturri oso eskasak ditugu Leuziporen bizitzari eta filosofiari buruz: K.a. V. mendean bizi izan zela ziur dakigu ordea.
- Zenon Eleakoaren ikasle izan zen, eta Zenon Eleakoa Parmenidesen ikasle. Hain zuzen, Zenon Eleakoaren aporia argitzeko ere baliatu zen atomismoaren oinarrizko ideia: espazioa ezin dela mugarik gabe zatitu, azkenean beti daudela atomoak.

- Haren ekarpenak zehaztu gabe, atomismoaren sorrera Leuzipori zor zitzaiola adierazi zuen Aristoteleseki; ustez Leuziporen lana den *Megas Diakosmos* (Kosmologia Handia) lana irakurrita. Beranduago, K.a. III. mendean, atomismoa zabaldu zuen Epikurok Leuzipo existitu zenik ere ukatu zuen ordea.
- Nolanahi ere, Demokrito, Leuziporen ikasle edo lankidea izan zena, hartzen da atomismoaren filosofo garrantzitsuentzat. Ustez, berak jaso eta garatu zituen Leuziporen ideiak eta berarengandik jaso dugu antzinako atomismoaren filosofiaren zati handiena.
- Leuzipok atomismoaren oinarrizko ideiak finkatu zituen, Demokritok ideiak horiek landu, zehaztu eta naturako fenomenoak azaltzeko baliatu zituen bitartean.

- Leuziporengandik aipu bakarra geratzen zaigu, eta gainera atomismoari buruzkoa ez dena, ustez berea den *Adimenaz (Peri Nou)* lanekoa:

*Ezer ez da alperrik (mâten)
gertatzen,
dena arrazoiz (logos)
eta beharrez gertatzen da.*

οὐδέν χρήμα μάτην γίνεται,
ἀλλὰ πάντα ἐκ λόγου τε
καὶ ὑπ' ἀνάγκης

- Eta horrela, zoritxarrez, Leuziporen filosofiatik dakigun guztia Aristotelesek (K.a IV. mendea) eta Teofrastok (K.a. IV-III. mendeak) adierazitakotik eta ondorengo iruzkinetatik datorkigu.

- Atomismoa presokratikoen artean dagoen aparteko eskolatzat hartzen bada ere, eskola eleatikotik eratorritako filosofia izan zen. Parmenidesen arabera, badena bakarra eta aldaezina da, bestela ez denaren existentzia ekarriko luke, eta ondorioz mugimenduaren posibilitatea ukatu egiten da. Egunerokoak mugimendua baieztatu egiten du, ordea.
- Leuzipo mugimenduaren begi bistako existentzia badenaren existentzia absolutuarekin bateratzen saiatu zen, hutsaren existentzia baieztatuz atomoen arteko espazioan. Atomoak infinituak dira, haren arabera. Mugimendua eta mundua bera atomoen nahasketa, konbinazioz eta bereizketaz sortzen da, zurrumbilo batean gertatzen diren presio eta beste indarren mende. Hala ere, atomoen oinarritzko izaera bakarra da, aldaezina, formaz eta kokapenez desberdinak diren arren. Atomoa Parmenidesen batasunetik eratorritako kontzeptua litzateke, beraz.

ERREFERENTZIAK:

- plato.stanford.edu: Leucippus
- The Atomists: Leucippus and Democritus: Fragments (Phoenix Presocractic Series)
- <http://www-groups.dcs.st-and.ac.uk/history/Biographies/Leucippus.html>
- The Oxford Handbook of Presocratic Philosophy
- Submerged Literature in Ancient Greek Culture, vol. 2.
- Democritus and Leucippus. Two Notes on Ancient Atomism, L'Antiquit Classique.